

Santixau hotsak gurean dira



drogeteniturri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 181. alea 2010eko uztaila



A, ze sari puskekak!

2010eko Postal lehiaketa

Euskal Birusa

247 postakutxa

48260 Ermua

ATA RA ZARA TA!



Santixauetan
EUSKARA
MINGAINEAN

Euskal Birusa Elkartea

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Drogeteniturrri

LAGUNTZAILEAK:

Jabi Vidal, Patxi López,
Mallabiko Udala eta Fede
Iturriagagoitia.

ARGAZKIAK:

Estibalitz González, Alazne
Aiestaran, Olatz Gil, Danbaka,
IMH, Dorleta Vidal, José Julio
Gómez, Óscar Sánchez eta
Eneritz Aranburu.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Jon Arano, Irune Martínez
eta Ane Loiola.

TIRADA:

2.200 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

TXINBO BURUBELTZA, *Curraca caprotada.* *Sylvia atricapilla*

Bere lumatza grisak ez du deigarritasun apartekorik, baina kantua kategoriazkoa du benetan: 'turek-turek, turek-turek'. Sasi eta sastrakak dira bere bizileku eta arerioen begi zorrotzetatik hanka egiteko ezkutaleku. Kumeek etxetik, parkatu, habitik alde egiten dute oraindik hegan egiteko gauza ez direla: arin, ziztu bizian eta ezker-eskumara sakabana-tuta lortzen dute sagu edo sugeen jatordu samurra ez izatea. Jate kontuetan eltxo, txindurri edo zomorrotxoak ez direnean, frutei egiten die kolpe, pikuei endemas. Ez da ugaria, baina Errekalde edo Eitzagan badago ikusterik.



Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO4 Eztanda	KIROLZALE16-17 Ermuarrak 'Hiru Handiak' proban
ELKARRIZKETA5-7 Irene Ramos	IRITZIA18 Gola zelaian...
MALLABIAN ZER?8-9 Mallabittarrak kiroletan	SALEROSKETAK19 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN10 Dardo txapelketa	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
SANTIXAUAK11-14 Jaietako egitaraua	KALEKO INKESTA21 Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
BOTEPRONTOAN15 Jose Mari Sánchez	AGENDA22 Abuztuko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eztanda elkarteak

Irratiz kontrolatutako kotxe zaletuen elkarteak 30 kide baino gehiago ditu eta aurten zirkuitua estreinatuko du Mendaron.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Eztanda 1990. urtean sortu zen, beste bi talde elkartu eta gero. Benetako izena Avar-Eztanda da, baina Ermuan Eztanda izenarekin gara ezagunak.

- Zenbat kide zarete?

Momentu honetan 30 taldekide baino gehiago gara, 34 edo 35. Inoiz ez dugu hainbeste bazkide izan, baina jendea

gure lana ezagutzen hasi da, probatu du eta apurka-apurka animatzen doa. Irratiz kontrolatutako kotxeetan aritzeko autoa eta gogoia besterik ez da behar.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Munduko txapelketarako baliagarria den proba bat antolatzea da gure helburu nagusia. Gaur egun Euskadiko txapelketarako probak antolatzen ditugu eta Espainia eta Europarako ere antolatu izan ditugu. Lehen errazagoa zen, baina orain askoz ere maila handiagoa dago eta zailagoa da proba bat antolatzea.

- Non duzue zirkuitua?

1995ean lur-eremu bat utzi ziguten Areition eta bertan izan dugu gure zir-

kuitua orain arte. Irailean, berriz, Mendaroko zirkuitua prestatzen bukatuko dugu eta bertan ibiltzen hasiko gara. Hilero Euskadiko 1/8 eta 1/6 kotxeetarako proba bana antolatzen dugu gutxi gora behera.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Probak antolatzeaz gain, erakustaldiak egiten ditugu. Aurtengo Santi-xauetako erakustaldia 13.a izango da. Altzolan, Mendaron, Durangon eta Matienan ere egin izan ditugu.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Gure webgunean kontaktatzeko modua dago: www.avareztanda.com.



Eztandako kideak, Errioxa eta Nafarroako zaletuekin batera, Areitioko zirkuitu ohian, euren kotxeen ostean.

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

TELEFLOR INTERNATIONAL

Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKILORE

0 eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

mimitos

Zapatak, pijamak,
lentzeria, aulkiak,
sehaskak, tronak...
behar duten guztia!

Eta gainera 'Hello Kitty'-ren
artikulu mordoa!

Probaleku 4, Ermua · ☎ 943 033 830



**Irene Ramos, IMHko 2010eko 'Ikasle Aipagarria':
“Oraindik ere, tailer batzuetan ez dira
emakumeak begi onez ikusten”**

Irene Ramos Salamancan jaio zen duela 36 urte eta Zuzenbidean lizentziatua da. 2005eko martxoan Salamanca eta bere croupier lana utzi eta Ermura etorri zen, bikotekidearekin bizitzera eta bizimodua ateratzera. Bi urtez ikasketekin zerikusia zuen lan baten bila egon zen eta hainbat ikastaro egin zituen, taberna batean lanean ziharduen bitartean. Duela 3 urte, Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan matrikulatu eta 2010ean espedienterik onenarekin bukatu du Produkzio bidezko mekanizazioaren goi-mailako heziketa zikloa.

- *Abokatua zara eta bat-batean tailerren munduan murgiltzea erabaki zenuen. Zer dela eta?*

Ermura etorri nintzenean ez nuen lanik topatzen. Bi urte baino gehiago eman nituen horretan. Inguruan tailerrak nagusi direnez, Enpleguko Institutu Nazionalak prestatzen dituen ikastaroe-tako bat egitea pentsatu nuen. Momentu horretan Makina Erremintaren Institutuan 'Ikasi eta lan' programa martxan ipini behar zutela jakin izan nuen eta bertan izena ematea erabaki nuen.

- *Zertan datza programa hori?*

Programa honetan ikasketak eta lana tartekatzen dira. Goizean, Produkzio bidezko mekanizazioaren goimailako heziketa zikloa egiten nuen 4 orduz eta arratsaldean enpresa batean egiten nuen lana beste 4 orduz.

- *Gogorra izan da?*

Ni oso pozik nago, baina bai gogorra izan da, hasieran batez ere. Nire mutilaren laguntza ezinbestekoa izan da, nire negarrak eta urduritasun uneak lasaitzen zituelako. Klasean hamaika ikasle ginen eta ni, neska bakarra. Gainera beste ikasle bat kenduta, Oier, beste guztiek 19 eta 20 urte zituzten, eta nik 33. Neska bakarra, nagusiena, Salamanca-tik etorri berria, ez nekien



euskara... tira! dena nire alde nuen! Zorionez ikasle guztion artean giro ezin hobea sortu genuen eta berrant gustura egon naiz. Askok laguntzen zidaten, Oierrek batez ere, agian adin berekoak garelako.

- *Zertan laguntzen zizuten?*

Euskararekin, esaterako. Zikloa bi hizkuntzatan ematen ziguten eta horretan laguntza behar izan dut. Abokatua izatea ere mesedegarria izan zait ikasgai batzuetarako.

- *Eta Zuzenbidetik Produkzio bidezko mekanizazioko modulu batera jauzia ematea erraza izan da?*

Ez da hainbesterako alda-

keta izan abantaila bat izan dudalako: Institutuan UBIRaino zientziak ikasi nituen. Ingeniaritza egin behar nuen, baina azken momentuan Zuzenbidea aukeratu nuen. Betidanik gustatu izan zait eta ez naiz damutzen, oso gustuko dut-eta. Hala ere, Ermuan bukatuko nuela jakin izan banu, agian Ingeniaritza egingo nukeen.

- *IMHko espedienterik onena izateagatik jaso duzu saria. Zelan lortu duzu?*

Ikasten, baina ez gehiegi ere ez. Kasu honetan ere beste abantaila bat izan dut: hogeita hamar urtetik gora izanda, badakizu zer nahi duzun, ez duzu denbora galdu nahi. Argi nuen ikasturtea aurrera atera behar nuela. Halaber, banekien enpresek espedienteak kontuan izaten dituztela eta zenbat eta nota hobek, gero eta errazagoa dela lana topatzea. Aurten gainera kasu berezia egon da: IMHko

espediente onena izan dut eta lan produkzio bidezkoa ere bai. Bi sariak ezin nituen jaso, bigarren espedienterik onenari eman diote azken sari hau.

- *Saria 800 euroko ikasketara poltsa da. Zertan erabiliko duzu?*

Oraindik ez dakit. Ikastaroak egiteko eta materiala erosteko erabil dezaket, ordenagailua, esaterako.

- *Neska izateagatik diskriminaziorik sentitu duzu ikasten hasi zinenetik?*

Egia esan, emakume barentzako arlo honetan lanean hasi ahal izatea zaila da oraindik ere. Matrikulatu nintzenean, IMHk enpresa bat topatu behar zuen niretzat eta batzuek ezetza eman zuten neska nintzelako. Azkenean Abadiñoako Industrias LAIpek aukera eman zidan eta oraindik ere bertan egiten dut lana.

- *Zelakoa izan zen zure laneko lehen eguna?*

“Hogeita hamar urtetik gora izanda badakizu zer nahi duzun, ez duzu denbora galdu nahi”

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
 Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

komunitateak
 aseguruak
San Pelayo
 aholkularitza
 fiskal eta juridikoa
 Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Pub SCORPIO

 Zubiaurre, 21
ERMUA

Tailer batera lehen aldiz sartu nintzenez harrিতuta geratu nintzen. Ez nekien zein zen tornua eta zein fre-satzeko makina. Ez nekien zer zen barauts bat eta fresa bat. Hanka-sartze galantak egin nituen, baina aurpegi apur bat izan eta aurrera joan behar da! Bestalde, tailerreko neska bakarra naiz. Berrogei lagun inguruk egiten dugu lan bertan eta batzuek ez zuten begi onez ikusi neska bat makina bat programatzen. Ez zeuden ohituta neska batekin lan egitera.

- Zein izan da zure eboluzioa LAIPen?

Berriro ere zorte handia izan dudala esan beharra

daukat, asko ikasteko aukera eman didatelako. Makina ezberdinetan trebatu naiz: ohiko artezteko makina, tornuak, laser grabagailua, orekatzeko makina... Hasieran beste langile batekin egoten naiz eta ikasten dudanean bakarrik burutzen dut lana. Gaur egun aukera eman didate tailerrean dagoen makinari berrienean aritzeko eta ezagutza handitzeko. Oso gustura nago LAIPen eta bertan jarraitu nahi dut.

- Zortez gain, jarrera ere garrantzitsua da?

Bai, noski. Bizitzako esparru guztietan gertatzen da hori. Hala ere tailerraren kasuan, aingeru zaindaria

“Nire lanean doitasuna behar da eta emakumeok zorrotzagoak gara horretan”

izan dudala esan beharra daukat, Miguel Angel Fuenteko, tailerreko burua eta nire tutorea dena. Makina ezberdinak maneiatzeko aukera eman dit. Era berean, Iñaki Lamaraini eta bere aitari eskertu nahi diet eurekin lan egiteko aukera eman izana.

- Moduluan ikasitakoa praktikan ipini duzu?

Bai, oso baliagarria izan da. **- Eta zergatik uste duzu**

neskak ez direla tailerre-tan lan egiteko prestatzen?

Ez dakit, nire ustez animatu beharko liriateke. Argi dago tailer batean lan egitea gogorra dela, baina alde onak ere baditu. Ordutegia esaterako, ostalaritzakoarekin ezin da alderatu.

- Zein alde dago emakume eta gizonen artean zuk egiten duzun lanean?

Argi dago gizonak indartsuagoak direla baina kasu honetan, indarra baino, doitasuna behar da eta gu, orokorrean, zorrotzagoak gara.

- Eta azkenik, hurrengo erronka euskara ikastea izango da?

Jakina. Pena ematen dit moduluan egon naizen bitartean ikasi ez izana, bertan ia guztiek euskaraz hitz egiten zutelako eta praktikatzeko aukera nuen. Ermuan, berriz, ez dela hainbeste erabiltzen antzeman dut. Jadanik oinarritzko ikastaroa egin dut euskaltegian eta irailean horretan jarraitzeko asmoa dut.

Dorleta Vidal



Irene bere ama eta mutil-lagunarekin sari-banaketa egunean.


DULCE BEBÉ PEQUE'S
0 eta 4 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura
Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005


URDAITEGIA - CHARCUTERIA
MAYTE
Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA


Santiago Plaza 3, behea · ERMUA
943 10 82 42


CITROËN AUTOS AMEDI
Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

solozabal
tabakoak
torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



PUB YOMY
Zubiaurre
kalearen
bihotzean

Mallabittarrak, ezin hobeto kiroletan

Andoni Aldape mallabitarra eta Rober Uriarte abadiñarra, Euskadiko eskuz binakako eliteko txapelkun

Bizkaitarrek, Azpirik eta Diezek osatutako bikuari 22-14 irebazi eutsen Zumarragako Beloki frontoien jokaturteko finalien. Ordu bete eskasien burutu ebien euren lana, 498 pelotakada buenara jota. Partiduko lehelengo zatixen bikote galtzailie hobeto ibili zan eta 5-10 aurreratu ziren. Abadiñarra bere jokue erakutsi ezinik ibili zan eta Aldapek eutsi eutsen partiduari. Partidu erdittik aurrera baina, aurrelari abadiñarrak 19-11 lortzeraino, bihera sendo egindde irebazi ebien partidue. Hirugarren eta laugarren postuetarako Elezkanok eta Landaburuk 22-14 menderatu zittuezan Andreu (Larrañagaren ordez jokatu ebana) eta Irureta.

Andoni, bigarren VIII Oizpe txapelketan

Rober Uriartek urten eban txapelkun eta Andoni Aldape azpitxapelkun, Arkaitz Peñas lizaratarraren ordezko. Naparrak lesio bat izan eta honen lekuen jokatu eban Aldapek finala 22-9ko emaitzarekin.



Gartxot Mugarza eta Hiart Madariagak txapela Durangaldeko Pilota Txapelketan

Infantiletan irabazi eutsen Zaldibarko bikoari 11 tantuko aldiakin. Zaldibarko Udalak eta Zaldia Kirol Elkartiek antolatute, maiatzien ekin eutsen Durangaldeko Esku-pelota txapelketiari. Guztire Durangaldeko eta Lea-Artibaiko 120 pelotarik hartu dabe parte torneo honetan. Horretatik 24k jokatu ebiezan finalak sei maila ezbardinetan.

Boisen izango da Itsaso Pradera

Laura Saez Arzamendi eta Ane Itsasmendirekin batera, Munduko Pilota Batzarrak antolatute Estatu Batuetako Boise hirian III. Nazioarteko Nesken Gomazko Paleta Txapelketa jokatu dau Itsasok, Josu Oleaga hautatzailliarren gidaritzapien. Boisen lau urtetik behin ospatzen dan JAIALDIXEN antolatu dabiezan txapelketetako bat da torneo hau. 2007xen San Francison (California) eta 2009xen La Platan (Argentina) Itsaso izan zan txapelkun Uxue Fernandez eta Ainhoa Montesekin hurrenez hurren, eta Judith Etxarriekin ordezko moduen Argentina aldi. Laura Saez Arzamendik eta Ane Itsasmendik (One Wall 2007xen parte hartu ebana) lehenengoz jokatu dabie nazioarte mailan. Estatu Batuetako, Argentinako, Venezuelako eta Australiako palisten kontra jokatu dabe. Uztailaren 22xen abiatuko dira Ameriketarutz abuztuaren 3en bueltatzeko, eta ahal bada txapelaz! Aupa neskak!!



Testuak: Eneritz Aranburu



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€), menua,
plater konbinatuak, bokatak,
pintxoak, kazolak...

* Bazkari eta afariak
parrillan (enkarguz):
txuletak, arraina...

Enkarguak:
943 174 952
(asteartetan itzita)



KALBARIO KALIE KONPONDUKO DABE

Udala auzokideekin bildu zan uztailien ze konponketa egin- go diren azaldu eta euren iritzia jasotzeko. Obraren ardura zer enpresari emongo jakon hil honen amaieran jakinaraziko dabe. Irailetik hasitte abendure bittartien egittie aurreikusit dabe, Aitor Loila alkatearen esanetan. Obrok Europako eta Eusko Jaur- laritzako diru-laguntzekin finantziatuko dabiez eta guztire 300.000 euroko kostue eukiko dabe. Kaleko goiko aldien jesar- lekuek ipiniko dira eta kalie ezinduentzako egokittuko da. Ka- leko ezkeraldie da konponduko dabena batez be, "eskubiko etxeak bota egingo dabiez-eta", dinosku alkatiek. 'Izartu' pla- nari obra honekin emongo deutse Udalak amaierie. Plan honen barruen Mallebarrengo kalie urbanizatu, Mikel Zaraten igogai- lue ipini eta parkeko lurre konpondu dabe.

SARA BETE LIBURU, EUSKARAZKO IRAKURKETA BULTZATZEKO

Sara bat zer dan, ondo daki gure amamak. Makina bat oste- ra egin biher izan zittun Plazentziaraino sara bete jenero har- tu eta txakur txiki batzuk ataratzekotan. Eta holan zemat an- dra euskaldun, astue trallan hartute sagarrak, esnie, eukeza- nak arrautzak, ortuarixek, eta ahal zana saltzera hainbeste ha- rutz-honutz. Etxera heltzerakuen ume zorrituok saran begire hasten ziren, astue lotzeko astirik emon barik amai, txokolate apurren bat topatzekotan edo gailetak edo auskalo zer gozo eta gozagarri. Gaur, saran liburuek daukaguz. Aukeran, dozena bat uda honetan euskaraz irakurtzen gozatzeko Orraittoren eskutik. Elkartetik esan deuskuenez, "badago jende bat eus- keraz irakurri nahiko leukena, baina hasierako pausue emoten animatzen ez dana, pentsatzen dabelako euskarazko liburuek zailek diela edo luziegixek edo...". Hori dala eta, Liburutegi- xen eskuragai sara baten sartute egongo dira "geure ustez gus- tora irakutzen dien liburuek". Jendie euskaraz irakurtzera ani- matzie eta zaletzie da helburue. Amama sagar saltzetik etxe- ratzen zanien lez, txokolaterik edo beste gozagarrik ete eka- rren, astinddu daigun sarie, gozatu daigun euskeraz!

* ANDRA MARI JAIETAKO EGITARUAU, DROGETENITTURRIKO AZKEN ORRIAN

MALLABIBANDEN KONTZERTU ARRAKASTATSUE

Aurten hirugarrenez eskaini eban kontzertua uztailaren 10ien Herriko Tabernako ortuen Mallabiband taldiek. Ordue baino berandutxua hasi ziren arren, bertaratu zirenei gozara- zi eutsien, Rock&Roll musikiaz batez be. Pablo Milanes, Sha- nia Twain, Loquillo, Madonna, Chuck Berry, The Beatles, La Bamba, eta beste hainbaten kantuek bertsionatu ebiezan. Taldeko baterijole Sufok egindeko pare bat kantu be eskaini zittuezan, Manuren ahotsien. Teldekidiek Sufo bateria, Iban gitarra, baxua eta ahotsa, Oscar gitarra, baxua eta ahotsa, Manu baxua eta ahotsa eta Josu trikitixa dira.



ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MUGA

KALORIK

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

I AKADEMIA
E ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 90 38

IZOTZ
IZOZTUAK

ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1

943 17 60 52

943172665 ERMUA

BAGROS

Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*

**DROGETENITTURRI,
BERTOKO BILDUMAN**

Drogetenitturri aldizkariko zenbaki den-denak Liburutegiko Bertoko Bilduman kontsultatu ahal izango dira uztailetik aurrera. Estibalitz Gonzálezek egin du dohaintza hau, 20 urtetan bildu eta koadernaturiko aldizkariak ermuar guztien eskura ipiniz. Bildumak Estibalitzena izaten jarraituko duen arren, Udal Liburutegiak zaindu eta gordeko du.

**BERDINTASUNERAKO III
PLANA ONARTU DA**

Udalbatza osatzen duten alderdi guztiek aho batez onartu dute herriko emakume eta gizonen berdintasuna lortzea helburu duen III. Plana. Honek lau oinarri ditu: zeharkakotasuna, kontziliazio eta erantzukizuna, jabetasuna eta politikan emakumeen parte-hartzea, eta generoen arteko biolentzia. 2013. urtera bitartean egongo da indarrean eta 710.000 euro inguru jasoko ditu jarduerak gauzatzeko eta egindakoa ebaluatzeko.

**ARANTZA MORENOK,
ERREKORRA JABALINAN**

Arantza Morenok txapelketa errekorra lortu zuen ekainaren amaieran Iruñean burututako atletismo txapelketetan. 44.64 metroko jaurtiketa egin zuen 500 gramoko jabalinarekin. Aurreko marka 2003an ezarri zen eta Morenok metro batean hobetu zuen marka hori.

Titin III-Laskurain / Xala-Zubieta Santixau jaietan

Titin III - Laskurain / Xala - Zubieta arituko dira Ermuko Pilotazaleak klubak Santixauetarako antolatu dituen pilota partiduetan. Uztailaren 25ean, domekan, lehenengo, Cabrerizo II - Larrinaga / Ibai Perez - Merinoren aurka jokatuko dute 17.00etan Aritzemendi Pilotalekuan. Sarreraren prezioa 20 eta 25 euro bitartekoa izango da eta uztailaren 19tik 23ra bitartean egongo dira salgai Lobianon, 19.00etatik 21.00era. Horretaz gain, www.ermukopilotazaleak.nireblog.com helbidean sarrerak erreserbatzeko aukera egongo da. Uztailaren 26an, bestalde, Albizu - Pujana / Garcia - Gonzalez eta Arrese - Barrenetxea / Egiguren - Olalde jokatuko dute 18.00etan plazako frontoian. Honetaz gain, Ermuko Pilotazaleak klubak urtero antolatzen duen Udaberri txapelketako finala uztailaren 9an jokatu zen. Antolatzaileek Garikoitz-Gandiaga eta Mugerza-Bustindui zoriondu nahi dituzte finalera heltzeagatik eta eskerrak eman nahi dizkiete parte hartzaile guztiei.

**Danbakako IV edizioa martxan da**

Danbaka musika lehiaketa aurkeztu zen uztailaren 14an. Azken edizioan, 2008an, Flipin Folk ermuarrek eta Damudot mallabitarrek parte hartu zuten. Aurten parte hartu nahi duten taldeek irailaren 17an baino lehen eman beharko dute izena eta honako hau aurkeztu: 3 kantu original (bertsiorik ez) eta taldearen argazkia, biografia txiki bat, helbidea, telefonoa eta e-posta. Taldekide bat gutxienez Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldekoa izan beharko da, eta taldeak nahiz eta aurretik diskoak izan, ezingo du une horretan kontratu diskografikorik indarrean izan. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Gainera, ikusleen sariari esker, musika tresnetan gastatzeko diru bonoa jasoko du talde batek. Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak eta Elgetako Espaloiak sortu zuten lehiaketa hau 2004an eta honen helburua "musika taldeei ezagutzeko baliabideak ematea da", besteak beste, antolatzaileen esanetan. Informazio gehiago www.danbaka.com helbidean.

**Ermuko dardo taldeak garaile Zamoran**

Alfredo Munín, Miguel Ángel Bastante, Alberto Martín eta David Jauregik XIII. Dardo Txapelketa Nazionala irabazi zuten uztailaren 9 eta 11 bitartean. Finala Zamorako Manuel Camba kiroldegian jokatu zen eta Ermukoek lehen postua eskuratu zuten, kopa bana eta 200 euroko saria irabaziz. Finalera heltzeko, Haizea, Lurpe, Outomuro, Txalaparta, Padok, Lex eta Ego Gain tabernetan jokatutako txapelketa ezberdinetan posturik onenak lortu zituzten gazte hauek. Partidak urtarrilean hasi ziren gutxi gora behera, 'Solabarria dardoak' eta Oscar Sánchez 'Elkapi'k bultzatuta. Zamoran burututako txapelketa, berriz, 'Kursaal k7' elkarteak antolatu zuen.



Yoga eskola

Sanatana Dharma

* Arnasketa.
* Ariketa fisiko egokiak...

San Roke 24, behea · 943748593
685722131 (Idoia) 639652729 (Lourdes)

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGAÑA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Ondo pasa Santixauetan!!

UZTAILAK 24, LARUNBATA

- **9.45:** Lobiano Kultur Gunean, BLOODBOWL TXAPELKETA.
- **16.00:** Patxi plazan, MEZUA DUTEN EDALONTZIEN BANAKETA
- **18.30:** Tratu onen aldeko plataformak 'LANYARD' en BANAKETA egingo du plazan.
- **19.00:** 'Irulitxa' musika-bandak alaituriko TXARANGEN AURKEZPENA eta ohiko KALEJIRA herriko kaleetan zehar.
- **21.00:** MUSIKA JAIALDIA parkean: DJ Alexander M. (21.00), Nemon (23.00), Seiurte (00.00), DJ Alexander M., Txanprax Perkusion eta DJ Fey (2.00).
- **23.00:** DANTZALDIA Orbe Kardinalaren plazan Esmeralda orkestrarekin.



hanigan's
Irish TAVERN

Gosari, bazkari eta afariak
-eramateko prestatzen dugu-

Pintxoetan eta
garagardoetan aukera zabala.

Astegunetan 7:00etan zabaltzen dugu.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, 10:00etan.

Komentukua z/g · 943030527



ZAPPA
TABERNA

San Pelaio 16





MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefonoa 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

UZTAILAK 25, IGANDEA

- **4.00-6.00:** Esmeralda orkestrak GAUPASA girotuko du.
- **7.00:** TXOKOLATE-JANA Orbe Kardinalaren plazan.
- **7:30:** Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan BARRUS partidak izango dira.
- **8.00:** SOKAMUTURRA izango da Ongarai Eskolako patioan.
- **12.00-14.00** eta **17.00-20.00:** UMEENTZAKO PARKEA San Pelaion.
- **12.00:** Santiago Apostoluaren elizan MEZA izango da patrioiaren omenez.
- **12.30:** HERRI-KIROLAK plazan.
HARRIJASOTZAILEAK: Goenatxo II, Landarbide eta Saralegi.
AIZKOLARIAK: Bihurri eta Zelai II.
IPARRALDEKO JOKOAK: Zelailuze.
GAZTEEN ARTEKO TXAPELKETA: Zelai III, Zelai IV, Bihurri II eta Ureta.
- **12.30:** Macjeara's band taldearen eskutik KALEJIRA.
- **16.00:** San Pelaioko Bolatokian BOLO-PALMAKO SANTIXAUAK 2010 SARIA.
- **17.00:** Aritzemendi pilotalekuan PROFESIONALEN ARTEKO ESKUPILOTA PARTIDAK.



- **19.00:** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA Ondalan konpartsaren eskutik.
- **19.00:** KALEJIRA Foulareda taldeko gaita-joleen eskutik.
- **20.00:** LARRAINDANTZA izango da Orbe Kardinalaren plazan, nahi duen guztiak parte hartzeko.
- **20.30:** Orbe Kardinalaren plazan EUSKARAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA.
- **22.30:** Insomni Teatre Kastelloneko taldeak 'Spectrum' SU-IKUSKIZUNA eskainiko du San Pelaiotik hasita.
- **23.00:** Orbe Kardinalaren plazan Geiser orkestrak DANTZALDIA girotuko du.
- **23.00:** Valdespinako Markesaren parkean MUSIKA JAIALDIA: Rock & Road (23.00), The Riff Truckers (00.00), DJ Panu eta DJ Javiersky (1.30).

Santixauetan
EUSKARA
MINGAINEAN

Euskal Birusa Elkartea

jai
taberna

DO
Mouth

GARAGARDOEGIA

CERVECERIA
NACHO

ZYTIK

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78




UZTAILAK 26, ASTELEHENA

- **7.00:** TXOKOLATE-JANA Orbe Kardinalaren plazan.
- **7.30:** BARRUS partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
- **8.00:** SOKAMUTURRA izango da Ongarai Eskolako patioan.
- **12.00-14.00** eta **17.00-20.00:** HAURRENTZAKO PARKEA San Pelaioko plazan.
- **12.00:** NAGUSIEI OMENALDIA egingo zaie eta SARIAK entregatuko zaizkie Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei.
- **12.30:** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, ERMUAN KANTUAN KALEJIRARI emango zaio hasiera.
- **13.00:** Alboka Musika Eskolako Bandak KONTZERTUA eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.
- **14.00:** Aritzemendi Pilotalekuan Nagusien Etxeak HERRI BAZKARIA eskainiko die aiton-amona bazkideei.
- **18.00:** ESKU-PILOTA partidak izango dira Orbe Kardinalaren plazan: Albizu – Pujana García – González-en aurka eta Arrese - Barrenetxea - Egiguren Olalde-ren aurka.



- **19.00:** Kuko, Truku eta Bolewanderek PAILAZO IKUSKIZUNA eskainiko dute Orbe Kardinalaren plazan.
- **19.00:** KALEJIRA Irulitxa musika-bandak alaituta.
- **19.00:** KALEJIRA Lagunak eta Gure Txokoa txarangen eskutik.
- **20.00:** LARRAINDANTZA Orbe Kardinalaren plazan.
- **22.30:** Los Gingers taldeak, 'Perlas y plumas' KALE IKUSKIZUNA eskainiko du San Pelaioko plazan.
- **23.00:** Denis Band Orkestrak, DANTZALDIA alaituko du Orbe Kardinalaren plazan
- **23.00:** Valdespinako Markesaren parkean MUSIKA JAIALDIA. Army-Arma (23.00), Damudot (00.30), DJPanu, DJ Alexander M., Txanprax Perkusion, DJ Fey eta DJ Javiersky (2.00).






UZTAILAK 27. ASTEARTEA

- **7.00:** TXOKOLATE-JANA Orbe Kardinalaren plazan.
- **7.30:** BARRUS partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
- **8.00:** SOKAMUTURRA izango da Ongarai Eskolako patioan.
- **10.00-11.30:** Ermuko Merkatarari eta Ostalari eta Merkatu Plazako dendarien elkarteek arroza banatuko dute Orbe Kardinalaren plazan eta, ondoren, PAELLA LEHIAKETARI ekingo zaio, haur eta helduen kategorietan.
- **11.00:** Valdespinako Markesaren parkean SARDINA BANAKETA nahi duen guztiarentzat.
- **12.00-14.00** eta **17.00-20.00:** UMEENTZAKO PARKEA San Pelaion.
- **12.00:** San Pelaio bolatokian, BOLO-PALMA partida.
- **12.30:** Marmarra jazz bandaren KALEJIRA.

- **14.00:** Paella lehiaketara aurkeztutako platerak DASTATUKO dira. Ondoren, ohiko HERRI BAZKARIA.
- **18.00:** ERROMERIA Orbe Kardinalaren plazan, Lotxo taldeak alaituta.
- **19.00:** Epaimahaiak IRABAZLEAK ezagutaraziko ditu eta SARI-BANAKETA egingo da Valdespinako parkean.
- **19.00:** Afrikako perkusioaren Africa Baj Yai KALEJIRA.
- **19.15:** Orbe Kardinalaren plazan AURRESKU ETA LARRAINDANTZA nahi duen guztiarentzat.
- **20.00:** ERROMERIA Lotxo taldeak alaituta.
- **23.30:** Irulitxa musika-bandaren ONGI ETORRIA Orbe Kardinalaren plazan.
- **00.00:** SUZIRIAK Ongaraiko parkean. Ondoren KALEJIRA Orbe Kardinalaren plazaraino eta bertan jaiei agurra emango dien AGUR JAUNAK.
- **00.30:** JAIEN AMAIERA Rumba 3 taldeak alaituta Orbe Kardinalaren plazan.



T XALAPARTA ABERNA	- Itsaskabra pudina. - Txipiroiak. - Piper beteak: okela edo onddoak.
	- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak. - Redondo saltsan. - Sagar tarta. - Gazta tarta. - Tortila patata...
Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!	
Erdikokale 13 (Ermua)	ENKARGVAK 943 030 299

JOSE MARI SÁNCHEZ

- **Nola hasi zinen gozogintzan?**

la 50 urte daramatzat gozogintzan. Valladoliden hasi nintzen 15 urterekin eta harrrapatu ninduen lanbideak. Gero Eibarko Antxon gozodendan 29 urte egin nituen eta duela 14 urte ireki genuen Merkatuko 'Jose Mari' gozodenda.

- **Beharrezkoa da berrikuntza?**

Zalantzarik gabe. Etengabe egon behar duzu berrikuntzen. Kontua da lan asko dagoenean zaila izaten dela berrikuntzak egitea, lana atera behar delako lehenengo. Hala ere, gaztetan gogo gehiago duzu berritzeko; nagusitan, berriz, moteldu egiten da pertsona.

- **Zer nahiago gazia edo gozoa?**

Lehenengo gazia eta ondoren gozoa.

- **Gozoa gustuko duzu beraz.**

Bai, ez dut postrea barkatzen.

- **Jende askok gozogintzan lan egitea gustuko luke, horrenbeste gutizia inguruan...**

Hasieran asko jaten nuen, urteekin lasaitu egin naiz eta orain neurrian jaten ditut gozoak, naturaltasunez.

- **Otordu bat postrerik gabe...**

Garrantzitsuena falta du, ginga falta du.

- **Gozo edo postre on batek, zer behar du?**

Otorduaren araberakoa izan behar du postreak. Hau da, otordu bikain batek pos-



Jose Mari Sánchez duela 65 urte jaio zen Valladoliden eta 40 urte daramatza Ermuan.

4 anai-arreben artean gazteena da. Bi alaben aita. 15 urte zituenean hasi zen gozogintzan lanean.

tre bikain bat behar du, ogitarteko batek ez bezala.

- **Noizko Ermuko postrea?**

Horretan ari gara. Lehenengo urratsa eman dugu eta orain bideari jarraitu behar diogu. Dena dela, horrek bere denbora behar du.

- **Zein da zure espezialitatea gozogintzan?**

Hostopila. Bai jateko eta baita egiteko ere.

- **Ermuko bezeroa...**

Klasikoa da, baina kalitatea eskatzen duena.

- **Gaur egungo gizartean azukrea ez dago modan.**

Egun, gure gozoek azukrea dute beharrezkoa delako,

baina oso mugatua da. Alegia, ez diegu azukre gehiegi botatzen.

- **Urte hauetan guztietan asko aldatu dira osagaiak?**

Asko. Osagai guztiak dira arinagoak. Esaterako, esne gainak, koipeak duela 30 urte askoz astunagoak ziren. Finean, sukaldaritzan gertatzen den bezala, formulak bizi garen garaiarekin bat datoz.

- **Zer da lan honetan gehien estimatzen duzuna?**

Lanak sormenerako aukera ematen du, askotarikoa da eta gozatzeko aproposa. Egia da, batzuetan lan larregi izaten dugula eta ezin de-

la gozatu.

- **Lan honetan gustuko ez duzuna?**

Goiz jaikitzea gogorra da, nahiz eta lana gustukoa izan.

- **Zein ordutan hasten zara lanean egunero?**

Goizeko 5:30ean, baina lan gehiago dagoenean lehenago eta Gabonetan gaupasak ere egiten ditugu.

- **Zer gosaltzen duzu?**

Kafetxo bat jartzen dut mahai gainean eta lanean hasten naiz. Bitartean gozoren bat jaten dut.

- **Zerk eragiten dizu barrea?**

Argiñanoren txisteeek esaterako.

- **Sukaldean ondo moldatzen zara...**

Hainbestean. Paellak, arrozak, legatza egiten dut.

- **Biziorik?**

Txikiteoa eta Ermua Futbol Taldea. 6. zenbakia duen bazkidea naiz.

- **Familia osoak egiten duzue lan gozodendan. Ondo daramazue?**

Onerako izan da. Abantailak desabantailak baino askoz gehiago dira. Egia esan, oso ondo moldatzen gara.

- **Gozoki batek momentu txarrak gozatzen ditu?**

Dudarik gabe. Hobe da gozodenda batera sartzea farmazia batera sartzea baino.

- **Santixauetan...**

Lan egingo dugu. Pentsatzen dut urtero bezala, ondo joango direla.

- **Oporrak aurten nora...**

Murtziara 3-4 aste epean hartzera.

Alazne Aiestaran

KRABI

Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA



MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Tikitixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Ermuar erraldoiak 'Hiru Handiak' mendi-proban

Javi Alberdi, Oskar Arrieta, Eva García eta David López ermuarrek 'XVII. Hiru Handiak' mendi-proban parte hartu zuten ekainaren 26an. Guztira 100 kilometro egin zituzten oinez, tartean Gorbea, Anboto eta Aizkorriko tontorrak igaroz. Gogorra izan arren, pozik daude lortutako emaitzekin.

Zerua oskarbi zegoen mendizaleek Arabako Ondategitik goizaldeko 00.00tan Gorbeiarantz abiatu zirenean. Ohi bezala, aurtengo 'Hiru Handiak' lasterketako parte hartzaileek 100 kilometro egin behar zituzten hurrengo eguneko 00.00ak baino lehen. Baina aurten antolatzaileek berez gogorra den mendi-proba hau gehiago gogortzea erabaki zuten: ibilbidea kontrako norabidean egiten, Gorbeiatik Aizkorriara.

Guztira 1.512 lagunek izena eman zuten lasterketan (1.427 gizonezko eta 85 emakumezko), tartean 19 ermuar eta mallabitar. *"Proba honek 5.075 metroko desnibel positiboa du guztira eta 5.050 metroko desnibel negatiboa - dio Javi Alberdik-. Datu hau proba honen gogortasunaren adierazlea da".* Gogortasunaren adierazlea ere hurrengo datua da: 1.512 parte hartzaileetatik 711 bakarrik heldu

zirela helmugara (672 gizonezko eta 39 emakumezko).

Prestaketa fisikoa oso garrantzitsua da eta proba aurrera doan heinean gorputz osoan mina dutela igartzen dute mendizaleek. Prestaketa Urkon egiten dute askotan. Hasierako egunetan pare bat bider Urkora igo eta Beranotik bajatzen dira eta azken egunetan bost bider egiten dute ibilbide hura. Ermutik Debara, Zumaiara edota Urkiolara oinez edo korriketan joaten dira baita ere, Udalaitz eta Anboto igotzen. Horrek denbora inbertsio handia eskatzen du eta, azken astean deskantsatzen dutenez, *"bat-batean, eguna oso luzea egiten zaizu, mendira joan barik, zerbait falta zaizula igartzen duzu"*, diote.

Buruak ere berebiziko garrantzia du lasterketan. *"Fisikoa %70a da, gainontzekoa psikikoa da, mentalizatzea eta kontzentratua egotea"*, diote denek. Horretaz gain,



Oskar Arrieta, David López, Javi Alberdi eta Eva García.


jatea ere garrantzitsua da (barra energetikoak eta gelak, batez ere) eta ura edatea, ezinbestekoa: 15 eta 20 litro inguru edaten dituzte mendizaleek proban zehar.

"Bukatzen duten guztiak meritu handia dute -diote-. Hortik aurrera batzuk oinez joaten dira eta beste batzuk korriketan, euren marka pertsonalak hobetzeko eta bidea arintzeko. Ibiltzen joaten bazara luzeegia egin dai-

teke eta gaua berriro hel-tzen bada..., horrek apur bat desmoralizatu ahal zaitu".

David López

David López lehen ermuarra izan zen. 16 ordu, 42 minutu eta 17 segundo eman zituen ibilbidean eta 66. postuan heldu zen helmugara. Proba hau bi urtean behin burutzen da eta Davidentzat bigarren aldia izan da. *"Buru bere lekuan izan behar duzu eta mentalizatuta joan*



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

Euskara eta euskaltegia egin biak zureak



Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25

Quetzal

Arropa, bitxiak,
opariak... zer ez!

Goienkale 9 · ERMUA
943170065


-dio-. Horretaz gain, zure gorputza prestatu behar duzu. Mendian 8 orduko ibilbidea behintzat, erraz egin behar duzu proba honetan parte hartu ahal izateko”.

Proban bakoitzak bere helburua du. “Nire aurtengo erronka bukatzea izan da eta aurreko urteko marka hobetzea. Egun luzea da eta ha maika egoera suertatu daitezke, baina... Niretzat oso esperientzia ona izan da”. Errekuperazioa ere zaila izan daiteke, baina Davidek aurreten ez du hori antzeman. “Larunbatean heldu ginenean, pote batzuk, afaria, kafea eta domekan barbakoa egin nuen. Orain dela 2 urte, berriz, etsita heldu nintzen”.

Eva García

Eva García Ermuko lehen emakumea izan zen eta 5. postua lortu zuen emakumezkoen sailkapenean (17:25:13). Parte hartzen zuen 3. aldia zen eta hau gogorrena izan dela argitzen du. Hala ere “nire amaierak hasierak baino hobek izaten dira. Animatzen joaten naiz: ‘Aurten ere bukatuko dut!’ esaten diot nire buruari”. Momenturik txarre-na, berriz, eguna argitzen denean da, “logura ikaragarria izaten dudalako”.

Proba indibiduala izanik,



norberak bere indarrak neurtu behar dituela uste du Evak “argi dagoelako mendiak bakoitza bere lekuan ipintzen duela”.

Javi Alberdi

Javi Alberdik 91. postuan bukatu zuen (17:25:00) eta 6 kilo galdu zituen lasterketa egunean. Parte hartzen zuen 5. aldia zen “eta duda barik gogorrena izan da -dio Alberdik-. Hamar urte daramatzat parte hartzen eta aurreko edizioetan etaparik gogorrena lehena izaten zen (41 kilometro) eta gauzez egiten genuen. Aurten, berriz, egun argiz eta itzelezko eguzkipean egin behar izan dugu. Gainera gau osoa ibiltzen egon

eta gero harrapatzen zaitu, nekatuta zaudenean eta gogorragoa izan da”.

Hori dela eta, Urbian 300 lagun inguru erretiratu zirela diote, helmugara heldu baino 13 kilometro lehenago. “Pena bat da, egun osoa ibiltzen igaro eta gero”, diote.

Oskar Arrieta

Oskar Arrietak 160. postuan bukatu zuen (18:40:00). Azken momentuan erabaki zuen parte hartzea, beste batek ezetza eman eta gero. Berarentzat lehen aldia izan da eta ez daki hurrengo batean parte hartuko duen edo ez. “Nire helburua bukatzea zen eta

lortu dut. Erronka eta abentura izan da aldi berean”.

Bakoitzak bere sentsazio pertsonala du, dio Oskarrek. “Helmugara heltzen zarenean ez zara ohartzen, hurrengo egunean konturatzen zara. Sekulako oihuak botatzen dituzu, egin duzun az hartzean”.

Denak dira Artarra Mendi Taldeko kideak, David izan ezik, eta mendi taldeen sailkapenean 9. Postuan geratu zen Artarra, taldeko 9 lagun helmugara heldu eta gero. Hemendik gure zorion-agurra proban parte hartu zuten ermuar eta mallabitar guztiei.

Dorleta Vidal

SAGARDUI
bolsos

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

Proba-Leku
Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

Cable Spot

25 urteko esperientzia dugu
antena kolektiboak eta atezain
automatikoak instalatzen.

Zure antena TDTrA egokitu.
ETEN ANALOGIKOA
GERTU DAGO!

EUSKALTELEN BANATZAILEA

Telefonia mugikorra, zuntz-optikoa,
banda zabala, kable telebista... euskaltel

ERMUA. San Pelayo 4 behea. 943 172314

Gola zelaian, bakea lur gainean...

Jabi Vidal

'Gol en el campo, paz en la tierra' Evaristok bere garaian abestutakoa azken asteotan bizi izan dugunaren laburpen txiki bat izan daiteke. Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak.

Bitartean, herritarrok, denbora luzea daramagu Krisi hitza gure ezpainenatik kendu ezinik. Adituek diotenez, gaur egun bizi dugun egoera benetan larria eta kezkarria da, are gehiago, ekonomiak oraindik ez omen du hondoa jo eta ondorioz, datozen urteetan une latzagoak bizi beharko omen


ditugu. Bai telebista, bai irrati bai egunkariaren bidez egunero entzuten dugu lantegi asko itxi beharrean edo beren langile kopurua murriztu beharrean suertatu direla. Honek jakina, langabezi tasa izugarri igo du, eta aldi berean gure atsekabea: diru sarrerarik eza, hipotekei aurre egin ezina, pentsioen izoztea, diru-laguntzen murrizketak, soldaten jaitsiera, BEZaren igoera... Edozeinek 'A ze panorama!' pentsatu eta iturria itxiko luke segituan; baina ez pentsa, oraindik iturriari ura dario. Nola ulertu bestela Estatuak, gure poltsikoetatik, praka motzetan baloi baten atzean dabiltzan 23 futbolari, 600.000€ ordaintzea futbol partidu bat irabazteagatik?



Gaia albo batera utziz, Santi-xauak, herriko jaiak, gainean ditugu eta urtero bezala betiko aldarrikapena: Txosna-gune bat noizko? Herritik eta herritarrentzat antolatzen dira jaiak. Denon artean egiten ditugu jaiak eta lan asko ematen badute ere, gustura egiten dugu lan. Izan ere, eragileok urtean zehar egiten dugun lanaren bitartekoa eta gure lanaren erakuslea da. Jaiak herritarren parte hartetik sortu behar dira. Jaiak herriko kulturaren parte dira eta herri justu baten bidean jai eraikitzaileen aldeko apustua egin behar dugu. Beti asmatzen ez badugu ere, horretan saiatu behar gara.

Gure esku dago nolako jaiak nahi ditugun erabakitzea eta martxan jartzea. Horregatik beharrezkoa da txosna-gune bat exijitzea, jai herriko batzuen alde apustu egiteko.

**Gure esku dago
nolako jaiak nahi ditugun
erabakitzea**



IKASTOLA
38 urte Ermua
euskalduntzen



**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian
tokiko




Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

LANA
 Tituludun emakumea eskaintzen da menpekotasunak dituzten pertsonak zaintzeko. 619859032



Irailak 7
 Sorpresa! Zorionak aita. Musu handi bat zure familiaren partez!



Uztailak 19
 Zorionak Aitxitza Felix! Muxu handi-handi bat familikoen partez. Ondo pasau eguna!!



Uztailak 27
 Zorionak Iker zure 5. urtebetetzean. Musu handi-handi bat etxeko guztien partez.



Ekainak 17
 Zorionak Iker etxeko guztien partez! Muxu handi bat.



Uztailak 22
 Zorionak Jokin zure guraso eta anaiaren partez! Ondo pasa eguna!



Uztailak 7
 Zorionak Maddi pirata!!! 2 urte bete dituzu, gure piratatxoa! Musu handi bat eta... Abordatzera!!!



Uztailak 9
 Zorionak Mikel, etxekoen partez.

Bidali zure zorion-agurra edo iragarkia drogeten@gmail.com helbidera edo gure bulegora ekarri.
 Hurrengo zenbakirako azken eguna:
IRAILAK 15

**Elexosteko obrak direla eta, gure behin-behineko helbidea hauxe da:
 Errebalburu 1, behea. !!**

OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA

Marfil

FISIOTERAPIA

943 17 28 09
 Goienkale, 12 - behea

★

BACKSTAGE

6 - 16 URTEKOENTZAKO ARROPA !

Zubiaurre 30 · Ermua
 943 174 576

AHOLKULARITZA FISKAL ETA LEGALA

URIARTE IRAEGI, S.L.

Komentukoa 3
 Telefonoa: 943 17 33 87 • 48260 ERMUA (Bizkaia)

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Ardo banatzailea:

Riedel	Hugel&Fills
Avgvstvs	Anima Negra
Clos Mogador	Irache
Yllera	Cillar de Silos
Cantosán	Vriego
Luis Cañas	Laurona

DISTRIBUCIONES ARRAL
 TELEFONOA: 943 17 60 75

**MALLABIA
1968**

Argazki hau Elorrion aterata dago. 1968ko maiatzaren 1ean. Bertan agertzen dira: Jose Mari Agirre, Agustin Solozabal, Lucio Pradera, Juan Jose Telleria, Cesareo Pradera, Placido Pradera, Modesto Solozabal, Felix Pradera, Emilio Pradera eta Julian Albino Pradera.



**ERMUA
1981**



Santixauetako soka-tira jokoan, beti mutilak parte hartzen zutela eta, urte horretan neskek plaza-ratu ziren estreinekoz. "Txalaparta" txarangako neska taldea izan zen joko horretan parte hartu zuen lehen andrazko aldra, sokaren besteko aldean mutilak zituztela beti. Asteak lehenago Balerioneko terrazan jardun zuten entrenatzen, marra ez igarotzeko ahaleginetan eta gorputza zelan jarri ikasten. Nori irabazi edo norekin galdu zuten ez dute akorduan, baina aintzindari izatearen ohoretxo hori ez dute ahazteko!

Zubiaurren egindako argazki honetan muturretik hasita eta dena emanda, tiraka: M^o Luisa Pérez, Rosa Areitioaurena, Bea Izarra, Lourdes Conde, Mari Mar Pérez, Virginia Alberdi, Jacqueline Cermeño eta Eli Elizburu. Entrenatzaile lanetan, Ali Araiztegi.

MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

Drogeteniturrji, 181 zkia.

Senén

www.joyeriasenen.com / joyeriasenen@gmail.com


Azaleko minbizia prebenitzeko kanpainaren barruan, AECC-ek eguzkitik babesteko eta babes egokia lortzeko aholkuak eman zituen ekainaren 29an Orbe Kardinalaren plazan. Aurten bereziki jende gaztea ohartarazi nahi izan da. AECC-k bere 2009ko kanpainako karteletan iragarri bezala, 100etik batek, heldua denean azaleko minbizia izango duelako.

Erabiltzen duzu eguzkitako kremarik? Badakizu zein den zure azalaren fototipoa?

Ez dakit zein den nire azalaren fototipoa, baina hondartzara noanean 30 babes faktorea duen krema erabiltzen dut gorputzerako eta aurpegirako berezia den krema bat. Gero kolorea hartu ahala, babesa jaisten joaten naiz.



Ramon Redondo. 39 urte. Langilea



Krema erabiltzen dut hondartzara noanean eta baita bizikletan ibiltzen naizenean ere. Hasierako egunetan 30eko babes faktorea ematen dut eta poliki-poliki babes-maila jaisten dut. Inoiz ez dut egin azalaren fototipoaren azterketa.

Javier Vázquez. 30 urte. Langilea



Erabateko babesa erabiltzen dut beti. Izan ere, gure familian azaleko minbizi kasuak egon dira. Horregatik, urtero dermatologoarengana joaten naiz azterketak egitera. Hala ere, ez dakit zein den nire fototipoa.

Luci Cano. 33 urte. Langilea

Egia esan hondartzara joaten naizenean bakarrik erabiltzen dut krema, bestela ez dut ohiturarik. Hondartzarako 20. faktorea erabiltzen dut. Lehengoan plazan azalaren fototipoaren azterketa egiteko egon nintzen, baina azkenean jendea zela-eta, ez nuen egin.



Mainer Totorika. 33 urte. Langilea

Eguzkitik babesteko krema erabiltzen dut, baina bakarrik hondartzara joaten naizenean. Hasieran 30 babes faktorea duen krema erabiltzen dut eta gero 15ekora pasatzen naiz. Ez dakit zein den nire azalaren fototipoa.



Maitane Mallabiarrena. 27 urte. Langilea.



Ez dut eguzkitako kremarik erabiltzen. Egia esan, ez zait eguzkia gustatzen eta ez dut eguzkirik hartzen normalean. Ez dut inoiz egin azalaren fototipoaren azterketa.

Jon Ferreira. 27 urte. Langilea.

Testua: Alazne Aiestaran

Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

optika itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

TRABAKUKO IGOERA

Abuztuak 14:
Trabakuko igoera herrikoia. Bizikletarekin, Patxi plazan 16.00etan.

UDAKO ZINEA

- Abuztuak 2**
Avatar
- Abuztuak 4**
Alicia en el país de las maravillas
- Abuztuak 9**
Que se mueran los feos
- Abuztuak 11**
Furia de titanes
- Abuztuak 16**
Sherlock Holmes
- Abuztuak 18**
Pagafantas
- Abuztuak 23**
Fama
- Abuztuak 25**
Invictus

Emanaldi guztiak 22.00etan izango dira Orbe Kardinalaren plazan. Euria badago, emanaldiak Elizako aterpeetan izango dira.

Patxi López

ANDRA MARI JAIAK 2010 MALLABIA

ABUZTUAK 13, ostirala
19:00: Open Pelota partiduak.
Pradera-Pujana / Albizu-Pérez
Uriarte- Olalde / Azpiri-Aldape

ABUZTUAK 14, larunbata
UMEEN eguna
12:00-14:00 / 16:00-18:00:
Umeentzat parke berezia: puzgarriak, txalupak... Parkean.

19:00: Txupinazoa (Jasokunde Abesbatzak botako du). Ondoren Euskal Preso eta Iheslarien aldeko brindisa eta enkartelada.

19:30: Txokolatada plazan.
22:15: Pilota partiduak Mallabia I Kirol Etxean.

Olazabal-Merino / Idoate - Larrinaga
Mtz. de Irujo - Laskurain / Xala - Zubieta
(Aldaketak egon daitezke azken orduan)

00:00: ERLAXI taldearekin erromeria plazan.

ABUZTUAK 15, igandea
ANDRA MARI eguna
11:00: Meza Nagusia.

12:00: Trikitilariak eta jarraian Euskal Herri Kirolen erakustaldia Mallabia I Kirol Etxean.
Aizkoran: Buirri, Aitxu eta Zelai II.

Gaztetxoan Herri kirolak
A taldea
Aizkoran: Ioritz Gisasola
Harri-jasotzen: Aitor Garitagoitia
Txokor batzen: Gartxot Mugarza

B taldea
Aizkoran: Jon Gisasola
Harri-jasotzen: Aitor Elordi
Txokor batzen: Odei Ezpeleta
17:30: Mallabiko XX. Harri jasotze saria Harri Txikia.

17:30: Tute, mus, briska eta asto txapelketa tabernetan.

23:00: Suak (bouqueta). Ondoren: Golden Apple Quartet parkean.

ABUZTUAK 16, igandea, SAN ROKE NAGUSI ETA KOADRILEN EGUNA

11:00: Meza Nagusia.

11:00: XI. PAELLA LEHIAKETA.

14:00: Jubilatuen bazkaria probalekuan. Bazkal ostean KUPELA taldea egongo da 18:00arte.

20:00-01:00: Mallabitar guztientzat TXERRI ERREA ETA SAGARDOTEGI IBILTARIA plazan (sagardoa eta erromeria).

ABUZTUAK 20, 21, 22 eta 23
XXII. IDI PROBA TXAPELKETA

Mallabiko Udala

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Basorrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

OPTICA
J. CASADO



Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL
Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63

ERMUA
(Bizkaia)

ZABAL



ERMUA

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA



**Arrate
Garitaonandia**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66
a_garitaonandia@terra.es

 **"Adituak gara ondo
elikatzen irakasten"**

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behea. 943 17 63 72

Irale
horts klinika

Leire Irazu Garitaonandia

- Ortodontzia
- Pedriodontzia
- Odontologia orokorra
- Aho zirujia
- Inplanteak

Zeharkale 8, behea 943 17 71 34
www.irale.com

 **KIROL MEDIKUNTZA**
Indartu

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Kontsultak eta errekonozimendu medikoak • Fisioterapia
- 3. adinekoen mantenimendua • Esfortzu frogak • Urgentziak
- Masaje terapeutikoak eta kirol masajeak
- Laneko patologiak eta erizaintza • Kirol errekonozimendu medikoak
- Ermuko IMDra abonatuak % 10eko beherapena lesio kontsultetan
- Odol ateratze zentroa, egun berean erantzuna jasoz

ERA GUZTITIAKO MUTUA ETA ASEGURUEKIN KONTZERTATUA



Diputazio 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskaltel.net

 **san pelayo**
clínica dental horts klinika

Inplanteak
Ortodontzia
Periodontzia
Horts -zuriketa / Estetika dentala
Odontologia orokorra
Protesiak
P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui
Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

 **LEIRE MAYORA**
PODOLOGOA

Erdiko kale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

 **HORTZklinika**
nerea iñiguez

- Odontologia orokorra
- Estetika dentala
- Inplanteak
- Ortodontzia
- Protesiak
- Periodontzia
- Zirujia

San Ignazio, 4 ERMUA
943 03 05 12

 **fisioterapia
eta osteopatia
zentroa
aitziber**

Aitziber Fernández
Telf. 943 17 60 95
629 88 70 89
Sexto Centenario 13,behea
48260 ERMUA (Bizkaia)

**OSASUN GIDAN AGERTU NAHI BADUZU DEITU
943 17 93 50 edo 688 63 28 76
TELEFONORA**

Santxau jai egunetan Euskal Birusak TXIKURIXA zabalduko du iazko leku berean.

Egun eta gaueko txosna jartzea dugu helburu, adin tarte guztientzako zabalik egongo dena. Hori dela eta, bazkide guztioi laguntzeko aukera luzatu nahi dizuegu:

- Txandak eginez
- Patata-tortilak ekarriz...
- Zuen koadrilako 'erronda'n kontuan hartuz...

Lagundu nahi baduzu, deitu 688632874 telefonora

SOR DEZAGUN ERMUAN JAI-GIRO EUSKALDUNA!!



Euskal
Birusa
Elkartea